

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

2020ko otsailaren 24ko Alkate Dekretua, eskumenak eskuordetzeari buruzko 2019ko ekainaren 21eko Dekretua aldatzeko

2019ko ekainaren 21ean, zenbait eskumen udalbatzako zinegotzien gain uzteko dekretua eman zuen alkateak. Aipatutako dekretuan, gobernu eskuordetzeak zein eskuordetze bereziak aurreikusten ziren.

Felipe García Miravallesek zinegotzi eta Tokiko Gobernu Batzarraren kide izateari utzi ondoren Igor Salazar Ochoa zinegotzi izendatu delarik, eskumenen banaketa berri beharra dago korporazioaren barruan.

Eskumenen aldaketa horiek Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari, Hezkuntza eta Kultura Sailari eta Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Sailari dagozkie.

Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen dira alkatearen zereginak; horietako batzuk dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarreko beste kideen esku utz ditzakeela adierazten da bertan.

Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 124.4, a, f, g; 124.5 eta 127.1.e, g, h eta I artikuluetan ezarritakoa kontuan izanik, baita Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 12., 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa ere.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak —Menpeko Toki Erakundearen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Araudia onesten du— 43. artikuluan ezarritakoa ikusirik.

Xedatu dut

Lehena. Eskumenak eskuordetzeari buruzko 2019ko ekainaren 21eko Alkate Dekretuaren bigarren, hirugarren eta laugarren artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko dira:

“Bigarrena. Alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide Maider Etxebarria García zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokionez, salbu eta Merkataritza Zerbitzuaren eta Prestakuntzaren, Enplegu Sustapenaren eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa, eskuordetze berezia baitute.

Laugarrena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Estíbaliz Canto Llorente zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Hezkuntza eta Kultura Sailari dagokionez.

Zazpigarrena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Borja Rodríguez Ramajo zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Sailari zein Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Sailari dagokienez.”

Bigarrena. Indargabe uztea eskumenak eskuordetzeari buruzko 2019ko ekainaren 21eko Alkate Dekretuaren hamargarren artikulua bosgarren eta seigarren paragrafoetan Felipe García Miravalles eta Estíbaliz Canto Llorenteri emandako eskuordetze bereziak.

Hirugarrena. Eskuordetza berezia.

Igor Salazar Ochoa zinegotziaren gain uztea Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren barruko Merkataritza Zerbitzuaren eta Prestakuntzaren, Enplegu Sustapenaren eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa; edonola ere, Sailaren titularra den zinegotzi ordezkariari dagokio haren jarduera gainbegiratzea eta hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebaztea.

Azken xedapena. Dataren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, eta egun horretatik aurrea izango ditu ondorioak, ALHAOn eta udalaren web-orrian zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe geratuko dira dekretu honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko nahiz beheragoko dekretu eta ebazpenak oro.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 24an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE